

Aurrerapena datorren urtean osatuko da, 2018. urteko kontuak erabat itxi ostean

Kutxabankek 127,1 milioi euro eman dizkie Fundazioei kontura dibidenduan

- **Azken lau ekitaldietako ekarpena dagoeneko 500 milioi eurotik gorakoa izan da**
- **Erakundeak azken urteotan izan duen dibidendu politikari eusteko asmoa du, Europako Banku Zentralak banaketarako ipini dituen irizpideen arabera**

2018ko abenduaren 27an. Kutxabankek BBK, kutxa eta Vital Banka-fundazioei, Bankuaren akziodun bakarrak izaki, **kontura dibidenduan 127,1 milioi euro** ordainduko dizkie, 2018ko kontuak erabat itxi ostean osatuko den aurrerapen moduan.

Europako Banku Zentralak ezarritako kapital eskakizunak betetzearen ondorioz, akziodun dituen banka-fundazioen dibidendua maximizatzeko aukera du Kutxabankek. Dibidendu hori azken hiru ekitaldietan **irabazi garbiaren %50** izan da.

Kontura egin den dibidendu honen bitartez, azken lau ekitaldien gainean egin den ekarpena **500 milioi eurotik gorakoa** izan da dagoeneko.